



AGINDUA, 2019KO UZTAILAREN 17A, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO KIDEGOAK ETA ESALAK ARAUTZEN DITUEN LEGE-AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO DENA

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017ko uztailaren 10eko agindu baten bidez, hasiera eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeke Lege-aurreproiektua lantzeko prozedurari.

Legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioen kidegoak eta eskalak arautzea.

Lege-aurreproiektuak atal hauek ditu: zioen adierazpena, bi kapitulu, lau xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, bi azken xedapen eta eranskin bat.

I. kapituluak xedapen orokorrak biltzen ditu: Legearen xedea; aplikazio-eremua, eta kidegoen, eskalen eta espezialitateen ezaugarriak, zeinetan antolatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioak.

II. kapituluak kidego orokorrak eta bereziak zerrendatzen ditu; haien barnean sortzen diren eskalak, eta haietan sartzeko eskatzen den titulazioa. Kapitulu honetan, garrantzi berezia dute funtzionarioak kidego eta eskala berrietan integratzeko ezarri diren arauak. Irizpide orokorra da funtzionarioak integratzea lege berria onartu arte indarrean egon diren kidego eta eskalei dagozkien kidego eta eskaletan, zeinak Legearen eranskinean jasotzen baitira. Bigarrenik, baldin funtzionarioak kidego eta eskala batean baino gehiagotan sartzeko moduko titulazioa badu, aukera izango du, jatorriko azpitaldearen barruan, lege-testuak aurreikusten dituen egoeretako batean dagoen kidego eta eskalan integratzeko. Azkenik, arau berriak jaso dira kidego eta eskala berrietan integratu ezin diren langileentzat.

Xedapen gehigarriek, funtsean, agintzen dute lanpostuen zerrendak egokitu egin behar direla lege honek xedatzen duenari, eta indarrean dauden aldi baterako lan-poltsak integratu behar direla.

Xedapen indargabetzaile bakarraren bidez, bertan behera uzten da kidegoak eta eskalak antolatzeke orain arte indarrean egon den legea.

Azken xedapenetan, batetik, baimena ematen da Legea erregelamendu bidez garatzeko eta, bestetik, Legea argitaratu eta handik sei hiletara arte gerorutzen du hura indarrean jartzea.

Lege-aurreproiektuaren amaieran, funtzionarioak kidego eta eskala berrietan integratzeari buruzko eranskina dago.



Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikulua arabera, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziatio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Horregatik guztiagatik, eta lege-aurreproiektuaren testua ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Lehena. - Aldez aurretik onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioen kidegoak eta eskalak arautzen dituen Lege-aurreproiektua, agindu honen eranskinean jasotzen dena.

Bigarrena. - Lege-aurreproiektuaren izapideek aurrera egin dezaten agintzea, hasteko aginduan eta Xedapen orokorrek egiteko prozedurak erregulatzen dituen abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako eran.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 17an

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO KIDEGOAK ETA ESKALAK ARAUTZEN DITUEN LEGE-AURREPROIEKTUA



AURKIBIDEA

ZIOEN ADIERAZPENA	3
I	3
II	4
III	4
I. KAPITULUA	5
XEDAPEN OROKORRAK	5
1. artikulua.– Xedea	5
2. artikulua.– Aplikazio-eremua	5
3. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko taldeak, azpitaldeak eta kidegoak	5
4. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoak	5
5. artikulua.– Kidego orokorretako eta berezietako eskalak.	6
6. artikulua.– Kidegoetako eta eskaletako espezialitateak	6
7. artikulua.– Espezialitateen erregularizazioa	6
8. artikulua.– Mendekoen Lanbide Taldea	7
9. artikulua.–Lanpostuak adskribatzea kidego, eskala eta titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-taldeei.	7
II. KAPITULUA.....	7
KIDEGOAK ETA ESKALAK.....	7
10. artikulua.– Kidego motak.	7



11. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako funtzionarioen kidegoak	7
12. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoetara iristeko titulazio-eskakizunak	9
13. artikulua.– Kidego orokorretako eta berezietako eskalak	9
14. artikulua.– Lanpostu-zerrendak	11
15. artikulua.– Lehentasunezko eskalak eta bigarren mailako eskalak, lanpostuak betetzeari begira	11
16. artikulua.– Funtzionarioak kidegoetan eta eskaleten integratzea.	11
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	13
Lehenengoa.– Lanpostu-zerrendak egokitzea.	13
Bigarrena.– Desagertzeko aukerak	13
Hirugarrena.– Aldi baterako lan-poltsen integrazioa.....	13
Laugarrena.– Eskaletan eta espezialitateetan sartzeko titulu ofizialak.	13
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	13
AZKEN XEDAPENAK	13
Lehenengoa.– Erregelamendu bidezko garapena.	13
Bigarrena.– Indarrean jartzea.	13
ERANSKINA.....	15



ZIOEN AZALPENA

I

Administrazio publikoetako giza baliabideak administrazio horiek egokiro jardutea ahalbidetzen duten eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatzen duten osagaiak dira. Hartara, giza baliabideen antolamenduak eta egituraketak funtsezko garrantzia dute. Baliabide horiek ondo antolatuta, erantzun hobea eman dakieke herritarren beharrei zerbitzuak eskatzen dituzten eremuetan, eta aukera ematen dute erakundearen beharrezkoen arabera koherenteak diren bideak erabiliz lanpostuen hautaketa arrazionalizatzeko.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak funtzionarioak kidego eta eskaletan biltzea aurreikusi zuen, lanpostu-zerrendak antolatzeko beharrezko osagarria zelako eta sarbide-proba komunak eta barne-igoera arrazionalizatzen zituelako hain zuzen ere. Legeak, halaber, kidegoen funtzioa eta funtzio publikoaren egituraren txertatzeko modua zehaztu zituen eta lanpostu-zerrenda euskal funtzio publikoaren elementu egituratzaile bihurtu zuen. Kidegoetan sartzeko exijitutako titulazio-mailaren eta bete beharrezko funtzioen izaera homogeenaren arabera egokituz iritzitako kidego-kopurua sortu zen. Ildo horretan, bai administrazio-jardunaren oinarritzko funtzioak, bai lanbide edo prestakuntza akademiko jakin baten berezko eta berariazko ezagutzak eskatzen dituztenak esleitzen dituen kidegoen egitura bat onartu zen.

Otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzeak, kidego, eskala eta espezialitateen egitura batean islatu zituen lanbide-profil guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Funtzio Publikora sartu eta sustatzeko jokalekua argitze aldera.

Urte hauetan guztietan, lanpostu-zerrenden bitartez egituratu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko giza baliabideak. Zerrenda horietan lanpostu eta jardueraren arlo bakoitzari dagozkion lanbide-profilak zehaztu dira.

Kontuan hartuta harrezkero denbora luzea igaro dela, taldeak eta azpitaldeak Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuan ezarritako sailkapen berrira egokitu behar direla, titulazio berriak sortu direla, eta lanpostu jakin batzuen profil profesionala eguneratu egin dela, beharrezkoa da Administrazio kidego eta eskalen arauketa berri bati ekitea.



II

Oinarrizko araudiak xedatzen du funtzionarioak kidego, eskala, espezialitate eta bestelako sistemen bidez sailkatzen direla, eta sailkapen-elementu horiek konpetentzia, gaitasun eta jakintza komunak biltzen dituztela, hautaketa-prozesuen bidez egiaztatuak.

Kidegoak eta eskalak honela sailkatzen dira, haietara iristeko eskatutako titulazioaren arabera, talde hauek oinarri hartuta:

A Taldea: bi azpitaldetan banatua, A1 eta A2. Talde horretako kidego eta eskaletara iristeko, graduako unibertsitate-titularen jabe izatea eskatuko da. Legeak beste unibertsitate-tituluren bat eskatzen duenean, beste hori hartuko da aintzakotzat. Kidegoak eta eskalak azpitalde horietako bakoitzean sailkatzeko, kontuan hartuko dira bete beharreko funtzioetan eskatzen den erantzukizun-maila eta sarrera-proben ezaugarriak.

B taldea: talde honi dagozkion kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko, goi-mailako teknikariaren titularen jabe izatea eskatuko da.

C taldea, bi azpitaldetan sailkatuta, C1 eta C2, sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera.

C1: batxilergo edo teknikari titulua.

C2: derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatuaren titulua.

Lege honetan, aurreko sailkapenaren aldean, eskala batzuk sortu dira, bete beharreko funtzioek kualifikazio profesional bat eskatzen dutenean eta kualifikazio horrek titulazio akademiko desberdinekin bete daitezkeen edukiak hartzen dituztenean.

Lege honek, azkenik, aukera ematen die gobernu-organoei espezialitateak sortzeko, baldin lanpostu jakin batzuen eduki teknikoa eta berezia dela-eta haietan jarduteko baldintza gisa jakintzaren indibidualizaio-maila handiagoa beharrezkoa bada.

III.

II. kapituluak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko kidegoak eta eskalak sortzen ditu, eta haietan sartzeko eskatzen diren titulazioak ezartzen ditu.

Kidego orokorrek batez ere administrazio-jarduerarekin zerikusia duten funtzioak egiten dituzte; besteak beste, kudeaketa, ikuskapena, aholkularitza, kontrola, betearazpena eta antzekoak.

Kidego bereziek batez ere jakintza espezifiko bat eskatzen duten funtzioak egiten dituzte.



Aurreko kidego horien barruan, eskala kopuru mugatu bat sortzen da, non jasotzen baitira eskaletan sailkatutako postuen funtzioak betetzeko egokitzat jotzen diren ikasketa-eremuetako titulazioak.

Lehenengo xedapen gehigarriak agindu bat dakar, lanpostu-zerrendak lege honek xedatutakoari egokitu daitezten. Bigarrenak lanpostu batzuk desagerraraz daitezkeela aurreikusten du. Hirugarrenak agintzen du indarrean dauden aldi baterako lan-poltsak integra daitezela sortzen diren kidego eta eskaletan, eta laugarrenak dio lanpostu-zerrendetan ikasketa-eremuak finkatu behar direla.

Xedapen indargabetzaile bakarraren bidez, bertan behera uzten da kidegoak eta eskalak antolatzeke orain arte indarrean egon den legea.

Azken xedapenetatik lehenean, baimena ematen da Legea erregelamendu bidez garatzeko; bigarrenak Legea argitaratu eta handik sei hiletara gerorutzen du hura indarrean jartzea eta, azkenik, funtzionarioak kidego eta eskala berietan integratzea eranskina.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko funtzionarioen kidegoak eta eskalak arautzea.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko funtzionarioei aplikatuko zaie.

3. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko taldeak, azpitaldeak eta kidegoak

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko taldeak, azpitaldeak eta kidegoak sailkatzeko, bertan sartzeko exijitzen den titulazio-mailari begiratuko zaio, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikulua agintzen duenari jarraituz.

2.- Kidegoak, bete beharreko funtzioen izaera homogeenari jarraikiz, kidego orokorretan eta kidego berezietan sailkatuta daude.

3.- Kidegoen barruan eskalak egon daitezke.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionario izateak berekin dakar parte hartu den deialdian zehaztutako kidegoan eta eskalan sartzea.

4. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko kidegoak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko funtzionarioak kidegok sailkatzen dira, lanpostuetan bete beharreko funtzioen izaera homogeenaren



arabera eta funtzionario izateko hautaketa-prozeduretan egiaztatu beharreko kompetentzia, gaitasun eta jakintza komunak arabera.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kidegoak orokorrak edo bereziak izan daitezke.

5. artikulua.- Kidego orokorretako eta berezietako eskalak

Kidego orokorren eta berezien barruan eskala batzuk eratzen dira, eskaletan bildutako lanpostuetako zeregin, erantzukizun eta funtzio-espezializazioen arabera eta lanpostuak betetzeko egokitzat jotzen diren kualifikazio profesionalaren eta jakintza akademikoaren arabera.

6. artikulua.- Kidegoetako eta eskaletako espezialitateak

Espezialitateak sortu ahal izango dira, baldin lanpostu jakin batzuen eduki teknikoa eta berezia dela-eta haietan jarduteko baldintza gisa kidego eta eskaletako funtzioen indibidualizaio-maila handiagoa beharrezkoa bada.

7. artikulua.- Espezialitateen erregularizazioa

1.- Jaurlaritzaren Kontseiluaren dekretu bidez sortu, aldatu, elkartu edo ezabatuko dira espezialitateak. Dekretuak hauek ezarriko ditu:

- a) Espezialitatearen izena.
- b) Espezialitateak egiaztatze eta, hala badagokio, galtzeko prozedurak, eta horretarako betekizunak.
- c) Espezialitateetako funtzioak.

2.- Gainera, espezialitateari adskribatutako lanpostuetan gutxienezko egonaldi bat ezarri ahal da, espezialitateari adskribatu gabeko lanpostuak bete ahal izateko. Denbora hori ezingo da izan, kualifikazio-mailaren arabera, bi urte baino gutxiago, ez eta zortzi urte baino gehiago ere.

3.- Espezialitateak prozedura hauen arabera egiaztatu ahal izango dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario izateko hautaprobetan, gaintu egin behar dira horretarako egingo diren berariazko probak, bai eta parte hartu den kidegoari eta eskalari dagozkienak ere.

b) Integrazioz:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioentzat, dagoeneko espezialitateen bat egiaztatuta baldin badute, espezialitateak sortu, aldatu, elkartu edo ezabatzearen ondorioz.

2. Antzerako funtzioak betetzen dituzten kidego, eskala edo espezialitateetako beste administrazio publikoetako funtzionarioentzat; hala badagokio, gainera, egokitzapen-ikastaro bat gaintzea eskatu ahal izango zaie.

- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioentzat berariaz deituko diren proba espezifikoen bidez.



Gainditu beharreko probak ariketa teoriko-praktikoen bidez edo ikastaro selektibo baten bidez egin ahal izango dira; proba horietan ez dira sartuko aurretik jada funtzio publikoan sartzeko gainditutako gaiak. Hala badagokio, kasu jakin batzuetan, hautaprobak egiteko aurretiazko esperientzia egiaztatu beharko da.

d) Erregelamenduz zehazten diren prozedura objektiboen bidez, baldin eta, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraikiz, egiaztatu nahi den espezialitateak eskatzen dituen lanpostu-dotazioak betetzeko nahikoa gaitasun funtzional eta profesionala egiaztatzen bada.

8. artikulua.- Mendekoen Lanbide Taldea

Mendeko Lanbide Taldea sortzen da, zeinean sartzeko ez baita eskatzen hezkuntza-sisteman jasota dauden titulazioetarik bat ere.

9. artikulua.- Lanpostuak adskribatzea kidego, eskala eta titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-taldee

1.- Lege honetan arautzen diren kidegoetako, eskaletako eta titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-taldeetako berezko funtzioek ez dute ezein kasutan lanpostu jakin batzuk erreserbatzea ekarriko.

2.- Lanpostuak, haien ezaugarrien arabera, kidego, eskala eta titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-talde bati edo gehiagori adskribatuta egon daitezke. Adskripzioa lanpostu-zerrenden bidez erabakiko da beti.

II. KAPITULUA

2.- Kidegoak eta eskalak

10. artikulua- Kidego motak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kidegoak honela sailkatzen dira:

a) Kidego orokorrak: batez ere administrazio-jarduerarekin zerikusia duten funtzioak egiten dituztenak; besteak beste, kudeaketa, ikuskapena, aholkularitza, kontrola, betearazpena eta antzekoak.

b) Kidego bereziak: batez ere jakintza espezifikoko bat eskatzen duten funtzioak egiten dituztenak

11. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio funtzionarioen kidegoak

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio funtzionarioak kidego orokorretan eta kidego berezietan biltzen dira, sailkapen honen arabera:

a) Kidego orokorrak:

1. Administrazioko Goi-mailako Kidegoa.
2. Administrazio Kudeaketako Kidegoa.



3. Administrazioiko Administrazioen Kidegoa.
 4. Administrazio Laguntzaileen Kidegoa.
 5. Mendekoen Lanbide Taldea.
- b) Kidego Bereziak:
1. Teknikarien Kidego Berezia.
 2. Kidego Berezi Teknikoa.
 3. Laguntzaile Teknikoen Kidego Berezia.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko funtzionarioen kidegoak talde eta azpitalde hauen arabera sailkatzen dira:
- a) A Taldearen barruan:
1. A1 Azpitaldea:
 - Administrazioiko Goi-mailako Kidegoa
 - Teknikarien Kidego Berezia.
 2. A2 Azpitaldea:
 - Administrazio Kudeaketako Kidegoa.
 - Kidego Berezi Teknikoa.
- b) B Taldearen barruan:
- Laguntzaile Teknikoen Kidego Berezia.
- c) C Taldearen barruan:
1. C1 Azpitaldea:
 - Administrazioiko Administrazioen Kidegoa.
 2. C2 Azpitaldea:
 - Administrazio Laguntzaileen Kidegoa.
- d) Titulazio-eskakizunik behar ez duten lanbide-taldearen barruan:
- Mendekoen Lanbide Taldea.
3. Lege honen erregelamendu bidezko garapenak xehetuko ditu kidego bakoitzari dagozkion funtzioak.



12. artikulua.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako kidegoetara iristeko titulazio-eskakizunak

1. Kidego orokorretan sartzeko, ezinbestekoa izango da titulazio hauetako bat edukitzea:
 - a) Administrazioako Goi-mailako Kidegoan: Gradu, lizentzia, ingeniaritza edo arkitekturako unibertsitate-titulazioak.
 - b) Administrazio Kudeaketako Kidegoan: Gradu, lizentzia, diploma, ingeniaritza tekniko eta arkitektura teknikoko unibertsitate-titulazioak.
 - c) Administrazioako Administrazioen Kidegoan: Batxilergo-titulua edo lanbide-heziketako teknikariaren titulua.
 - d) Administrazio Laguntzaileen Kidegoan: Derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatuaren titulua.
 - e) Mendekoen Lanbide Taldean, eskola ziurtagiria edo erregelamendu bidez erabakitzen den gaitasun profesionaleko ziurtagiria eskatuko da.
2. Kidego berezietan sartzeko, ezinbestekoa izango da titulazio hauetako bat edukitzea:
 - a) Teknikarien Kidego Berezian, dagokion eskalan sartzeko prozeduran eskatutako unibertsitate-titulua izatea.
 - b) Kidego Berezi Teknikoan, dagokion eskalan sartzeko prozeduran eskatutako unibertsitate-titulua izatea.
 - c) Laguntzaile Teknikoen Kidego Berezian, dagokion eskalan sartzeko prozeduran eskatzen den lanbide heziketako prestakuntza-zikloko goi-mailako titulua eskatuko da.

13. artikulua.- Kidego orokorretako eta berezietako eskalak

1. Kidego orokorren barruan, eskala hauek sortzen dira:
 - A. Administrazioako Goi-mailako Kidegoa.
 - Administrazioako Goi-mailako Eskala.



- B. Administrazio Kudeaketako Kidegoa.
 - Administrazio Kudeaketako Eskala.

 - C. Administrazio Administrazioaren Kidegoa.
 - Administrazio Administrazioaren Eskala.

 - D. Administrazio Laguntzaileen Kidegoa.
 - Administrazio Administrazio Laguntzaileen Eskala.
2. Kidego berezien barruan, eskala hauek sortzen dira:
- A. Teknikarien Kidego Berezia:
 - *Kultura-administrazioaren Teknikarien Eskala*
 - *Kiroletako Teknikarien Eskala*
 - *Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sektoreko Teknikarien Eskala*
 - *Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazioaren Teknikarien Eskala*
 - *Lan-arretako Teknikarien Eskala*
 - *Gizarte-arretako Teknikarien Eskala*
 - *Kartografiaren Teknikarien Eskala*
 - *Ekonomia eta Enpresaren Teknikarien Eskala*
 - *Eraikuntza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Teknikarien Eskala*
 - *Larrialdietako eta Meteorologiaren Teknikarien Eskala*
 - *Estatistika eta Datu Analisietako Teknikarien Eskala*
 - *Farmaziaren Teknikarien Eskala*
 - *Hezkuntza Prestakuntza eta Administrazioaren Teknikarien Eskala*
 - *Industriaren Teknikarien Eskala*
 - *Azpiegituretako Teknikarien Eskala*
 - *Teknikari Juridikoen Eskala*
 - *Laborategiko Teknikarien Eskala*
 - *Medikuntzako Teknikarien Eskala*
 - *Ingurumeneko Teknikarien Eskala*
 - *Meatzetako Teknikarien Eskala*
 - *Itsasontzi Teknikarien Eskala*
 - *Hizkuntza Normalizazioaren Teknikarien Eskala*
 - *Prentsa eta Argitalpenetako Teknikarien Eskala*
 - *Lan-arriskuen Prebentzioaren Teknikarien Eskala*
 - *Giza Baliabideetako Teknikarien Eskala*
 - *Osasun Publiko eta Epidemiologiaren Teknikarien Eskala*
 - *Informazio-sistemetako Teknikarien Eskala*
 - *Telekomunikazioetako Teknikarien Eskala*
 - *Itzulpenetako Teknikarien Eskala*
 - *Albaitaritzako Teknikarien Eskala*



B. Kidego Berezi Teknikoa:

- *Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sektoreko Eskala Teknikoa*
- *Lan-arretako Eskala Teknikoa*
- *Gizarte-arretako Eskala Teknikoa*
- *Ekonomia eta Enpresako Eskala Teknikoa*
- *Eraikigintza, Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko Eskala Teknikoa*
- *Larrialdietako eta Meteorologiako Eskala Teknikoa*
- *Erizaintzako Eskala Teknikoa*
- *Estatistikako Eskala Teknikoa*
- *Hezkuntza Prestakuntza eta Administrazioako Eskala Teknikoa*
- *Industria Eskala Teknikoa*
- *Azpiegituretako Eskala Teknikoa*
- *Ingurumeneko Eskala Teknikoa*
- *Meatzetako Eskala Teknikoa*
- *Hizkuntza Normalizazioko Eskala Teknikoa*
- *Lan-arriskuen prebentzioko Eskala Teknikoa*
- *Informazio-sistemetako Eskala Teknikoa*
- *Telekomunikazioetako Eskala Teknikoa*
- *Laborategiko Eskala Teknikoa*
- *Itzulpengintzako Eskala Teknikoa*

C. Laguntzaile Teknikoen Kidego Berezia:

- *Kudeaketa Informatikako Eskala*
- *Obren eta Eraikinen Delineazioko Eskala*
- *Osasun eta Ingurumeneko Ikuskaritzako Eskala*
- *Laborategiko Eskala.*
- *Hazien Eskala*
- *Arrantzako Eskala*

14. artikulua.- Lanpostu-zerrendak

Lanpostu-zerrenden bidez zehaztuko da funtzionarioei gordetako lanpostuak zein kidegok eta eskalak bete ditzaketen.

15. artikulua.- Lehentasunezko eskalak eta bigarren mailako eskalak, lanpostuak betetzeari begira

- 1.-Lehentasunezko eskalatzat hartuko dira behin betiko lanpostuak betetzeko enplegu publikoan sartzeko probak deitzeko baliatzen diren eskalak. Lanpostua eskala bakar batera adskribatuta badago, eskala hori hartuko da lehentasunezkotzat.
2. Bigarren mailako eskalatzat hartuko dira lehentasunezko eskalez gain lanpostuak betetzeko prozesuak antolatzeko baliatzen diren beste guztiak.



3. Lanpostu-zerrenden bidez zehaztuko dira lehentasunezko eskala eta bigarren mailako eskalak.

16. artikulua.- Funtzionarioak kidegoetan eta eskaletan integratzea

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako karrerako eta bitarteko funtzionarioak lege honen bitartez arautzen diren kidego eta eskaletan integratuko dira, legearen eranskinean ezarritako baliokidetzaren irizpideei jarraituta. Langile horiek kidego eta eskaletan sartzeko eskatzen den titulazioa eduki behar dute.
2. Hala ere, baldin funtzionarioak kidego eta eskala batean baino gehiagotan sartzeko moduko titulazioa badu, aukera izango du, jatorriko azpitaldearen barruan, egoera hauetako batean dagoen kidego eta eskalan integratzeko:
 - a. Integratzea eskatzen duen kidegora eta eskalara adskribatuta dagoen lanpostu baten titularra bada.
 - b. Integratzea eskatzen duen kidegora eta eskalara adskribatuta dauden lanpostuetan gutxienez bost urteko esperientzia edukitzea egiaztatzen badu.
 - c. Integratzeko unean, integratzea eskatzen duen kidegora eta eskalara adskribatuta dagoen lanpostu batean badihardu. Lanpostu horretan urte bat, gutxienez, jardun izana egiaztatu behar du, salbu eta beste kidego eta eskala batean integratu ezin bada, Eranskinean adierazitako baliokidetzari jarraituz.

Aurreko integrazioa gauzatuko da borondatez parte hartuta lege hau argitaratzen denetik sei hileko epean, gehienez, deituko den prozedura batean.

3. Baldin eta ez badago baliokidetzarik jatorriko kidego, eskala eta aukeraren eta lege honen bidez sortzen diren kidego eta eskala berrien artean, funtzionario integratuko da titulazioaren eskakizuna betetzen duen eta bere jatorriko kidego eta aukera sailkatzen den azpitaldean dagoenean. Kidego edo eskala batean baino gehiagotan sartzeko eskakizunak betetzen baditu, bere lehentasunezkoan integratu ahal izango da, artikuluko honetako 2. apartatuan adierazitako kasuetan eta hango prozedurari jarraituz.
4. Funtzionarioak ez baditu betetzen lege honetan sortzen diren ezein kidego eta eskalatan sartzeko eskakizunak, jatorriko kidegoan geldituko da, “desagertzeko” kalifikazioarekin.
5. Funtzionarioak jarraituko du bere lanpostuari esleitu zaizkion ordainsariak jasotzen. Kidego eta eskala berrietan integratzeak ez du inolako ondorio ekonomikorik ekarriko, baina eten egingo du jatorriko kidego, eskala eta aukerarekiko lotura. “Desagertzeko” kalifikazioa duten kidegoetan gelditzen



diren langileek bertan jarraituko dute jardunean, harik eta baldintzak betetzen dituzten beste kidego edo eskala batean sartzen diren arte.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Lanpostu-zerrendak egokitzea

Lege hau indarrean jarri eta sei hileko epean, Eusko Jaurlaritzak dekretu bat emango du, lanpostu-zerrendetako edukia egokitzeko Legean sortzen diren kidego eta eskaletara.

Bigarrena.- Desagertzeko aukerak

Funtzionarioak ez baditu betetzen jatorriko kidego, eskala eta aukerari dagozkion kidego eta eskalan sartzeko eskakizunak, ez eta bere azpitaldeko beste ezein kidego eta eskalatan sartzeko ere, jatorriko kidegoan geldituko da, “desagertzeko” kalifikazioarekin.

Hirugarrena.- Aldi baterako lan-poltsen integrazioa

Enplegu publikoaren alorreko eskumena duen sailburuordetzaren ebazpen baten bidez, lege hau indarrean jartzen denean dauden aldi baterako lan-poltsak egokitu egongo dira sortzen diren kidego eta eskala berrietara.

Laugarrena.- Eskaletan eta espezialitateetan sartzeko titulazio ofizialak

Eskala eta espezialitateetan sartzeko beharrezkoak diren unibertsitate-titulazioak zehazteko, “jakintza-eremu” kontzeptua erabiliko da. Hona, beraz, zer den “jakintza-eremu”: ezaguera, konpetentzia eta trebetasun sorta komun bat partekatzen duten unibertsitate-titulazio ofizialen multzoa, eskaletan biltzen diren lanpostuetan jarduteko beharrezkotzat jotzen direnak.

Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira eskala bakoitzean sartzeko jakintza-eremuak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da otsailaren 25eko 1/2004 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta honen Erakunde Autonomiadunetako Kidegoak eta Eskalak Antolatzea, eta lege honen aurka doan beste edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Erregelamendu bidezko garapena.

Eusko Jaurlaritzak baimena du lege hau garatu eta ezartzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.- Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeit hamar egun igarota jarriko da indarrean.



Hortaz, Euskadiko herritar guztiek, partikularrek eta agintariek, lege hau zaindu eta zainarazi beharra daukate. Hala agintzen diet.

ERANSKINA – (Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalak arautzen dituen)

AURREKO SAILKAPENA	ESKALA BERRIAK
ADMINISTRAZIOKO GOI-MAILAKO KIDEGOA	ADMINISTRAZIO OROKORREKO GOI-MAILAKOA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ZUZENBIDEKO LIZENTZIAREN AUKERA	TEKNIKARI JURIDIKOA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; FARMAZIAKO LIZENTZIAREN AUKERA	FARMAZIA TEKNIKARIAK
GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ITSASONTZI-MAKINETAKO LIZENTZIAREN AUKERA	ITSASONTZI TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; HISTORIAKO LIZENTZIAREN AUKERA	KULTURA-ADMINISTRAZIOKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; MEDIKUNTZAKO LIZENTZIAREN AUKERA	MEDIKUNTZAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ALBAITARITZAKO LIZENTZIAREN AUKERA	ALBAITARITZAKO TEKNIKARIAK ERAIKIGINTZA, HIRIGINTZA ETA LURRALDE-ANTOLAMENDUKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ARKITEKTURAKO AUKERA	
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; NEKAZARITZA-INGENIARITZAKO AUKERA	NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINZAREN SEKTOREKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; BIDE, UBIDE ETA PORTUEN INGENIARITZAREN AUKERA	AZPIEGITURETAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INDUSTRIA-INGENIARITZAREN AUKERA	INDUSTRIA TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; MEATZE-INGENIARITZAREN AUKERA	MEATZE TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; MENDI-INGENIARITZAREN AUKERA	NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINZAREN SEKTOREKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; TELEKOMUNIKAZIO-INGENIARITZAREN AUKERA	TELEKOMUNIKAZIOETAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO LIZENTZIAREN AUKERA	KIROLETAKO TEKNIKARIAK
GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ARTXIBATEGI, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIOA ESKALA	ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKARIAK
GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INFORMAZIOAREN SISTEMAREN ETA TEKNOLOGIEN ESKALA	INFORMAZIOAREN SISTEMETAKO TEKNIKARIAK
GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ITZULPENGINTZAREN ESKALA	ITZULPENGINTZAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAREN ESKALA	NORMALIZAZIO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ESTADISTIKAREN ESKALA	ESTADISTIKA ETA DATU-ANALISIETAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; GEODESIA ETA KARTOGRAFIA INGENIERITZAREN AUKERA	KARTOGRAFIA TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INGURUMEN-ZIENTZIETAKO LIZENTZIAREN AUKERA	INGURUMEN TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO LIZENTZIAREN AUKERA	EKONOMIA ETA ENPRESAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ZIENTZIA AKTUARIAL ETA FINANTZARIOETAKO LIZENTZIAREN AUKERA	EKONOMIA ETA ENPRESAKO TEKNIKARIAK

GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; EPIDEMIOLOGIAREN ESKALA	OSASUN PUBLIKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; LABORATEGIAREN ESKALA	LABORATEGI TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; OSASUN PUBLIKOAREN ESKALA	OSASUN PUBLIKO ETA EPIDEMIOLOGIAKO TEKNIKARIAK
GOI MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; KAZETARITZAKO LIZENTZIAREN AUKERA	PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; PUBLIZITATE ETA HARREMAN PUBLIKOETAKO LIZENTZIAREN AUKERA	PRENTSA ETA ARGITALPENETAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; EKONOMIAKO LIZENTZIAREN AUKERA	EKONOMIA ETA ENPRESAKO TEKNIKARIAK
GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ARTEAREN HISTORIAREN LIZENTZIAREN AUKERA	KULTURA-ADMINISTRAZIOKO TEKNIKARIAK
ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAKO KIDEGOA	ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA ENPRESA ZIENTZIETAKO DIPLOMAREN AUKERA	TEKNIKOA; EKONOMIA ETA ENPRESA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ARKITEKTURA TEKNIKOAREN AUKERA	TEKNIKOA; ERAIKIGINTZA, HIRIGINTZA ETA LURRALDE-ANTOLAMENDUA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ERIZAINZAKO DIPLOMAREN AUKERA	TEKNIKOA; ERIZAINZTA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INFORMAZIOAREN SISTEMEN ETA TEKNOLOGIEN ESKALA	TEKNIKOA; INFORMAZIOAREN SISTEMAK
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ITZULPENGINTZA	TEKNIKOA; ITZULPENGINTZA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	TEKNIKOA; NORMALIZAZIOA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; ESTADISTIKAREN ESKALA	TEKNIKOA; ESTADISTIKA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INDUSTRIA INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, KIMIKA INDUSTRIALAREN ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; INDUSTRIALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; NEKAZARITZAKO INGENIARITZA TEKNIKOAREN AUKERA, NEKAZARITZAKO USTATEGIETAKO ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA, NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINZAREN SEKTOREA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INDUSTRIA INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, ELEKTRIZITATEAREN ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; INDUSTRIALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INDUSTRIA INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, ELEKTRONIKA INDUSTRIALAREN ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; INDUSTRIALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INDUSTRIA INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, MEKANIKAREN ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; INDUSTRIALA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; INFORMATIKAKO INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA	TEKNIKOA; INFORMAZIOAREN SISTEMAK
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; NEKAZARITZA INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, NEKAZARITZA ETA ELIKADURAKO INDUSTRIETAKO ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINZAREN SEKTOREA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; NEKAZARITZA INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, BARATZEZAINZTA ETA LORAZAINZAKO ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINZAREN SEKTOREA
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; HERRI LANETAKO INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, ERAIKUNTZA ZIBILETAKO ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; AZPIEGITURAK
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; HERRI LANETAKO INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, HIRI-GARRAIO ETA -ZERBITZUETAKO ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; AZPIEGITURAK
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; MEATZEETAKO INGENIERITZA TEKNIKOAREN AUKERA, MEATZE USTATEGIETAKO ESPEZIALITATEA	TEKNIKOA; MEATZEAK
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; MEATZEETAKO INGENIERITZA	TEKNIKOA; MEATZEAK

TEKNIKOAREN AUKERA; ENERGIA BALIABIDE, ERREGAI ETA LEHERGAIETAKO ESPEZIALITATEA	
ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOA; BASOGINTZAKO INGENIARITZA TEKNIKOAREN AUKERA, BASO-USTIATEGIETAKO ESPEZIALITATEA	TEKNIKOAK; NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINZAREN SEKTOREA
ADMINISTRARIEN KIDEGOA	ADMINISTRATIBOA; ADMINISTRAZIO OROKORRA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; APLIKAZIO INFORMATIKOAK GARATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	LAGUNTZAILE TEKNIKOAK, KUDEAKETAKO INFORMATIKA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA	LAGUNTZAILE TEKNIKOAK, KUDEAKETAKO INFORMATIKA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN AUKERA	LAGUNTZAILE TEKNIKOAK, OBREN ETA ERAIKINEN DELINEAZIOA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; HIRIGINTZA PROIEKTUETAKO ETA OPERAZIO TOPOGRAFIKOETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	LAGUNTZAILE TEKNIKOAK, OBREN ETA ERAIKINEN DELINEAZIOA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; ERAIKUNTZA PROIEKTUEN GARAPENKO ETA APLIKAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN AUKERA	LAGUNTZAILE TEKNIKOAK, OBREN ETA ERAIKINEN DELINEAZIOA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; OBRA-PLANAK GAUZATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIAREN AUKERA	LAGUNTZAILE TEKNIKOAK, OBREN ETA ERAIKINEN DELINEAZIOA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; LABORATEGIAREN ESKALA	LAGUNTZAILE TEKNIKOAK, OSASUN ETA INGURUMENEN IKUSKARITZA
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; LABORATEGIAREN ESKALA	LABORATEGIKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; KIMIKA INDUSTRIALEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	LABORATEGIKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; DIAGNOSI KLINIKOKO LABORATEGIKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	LABORATEGIKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; ANALISIKO ETA KALITATE KONTROLEKO LABORATEGIKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	LABORATEGIKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; INGURUMEN OSASUNEN GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	LABORATEGIKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	HAZIETARAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; NATUR ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	HAZIETARAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIAREN AUKERA	HAZIETARAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; ITSAS NABIGAZIO, ARRANTZA ETA GARRAIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	ARRANTZAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
LAGUNTZAILE TEKNIKOEN KIDEGOA; ITSASONTZITAKO MAKINAK ETA INSTALAZIOAK GAINBEGIRATZEKO ETA KONTROLATZEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	ARRANTZAKO LAGUNTZAILE TEKNIKOAK
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN KIDEGOA	ADMINISTRAZIO OROKORREKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
MENDEKO LANGILEEN KIDEGOA	MENDEKOEN LANBIDE TALDEA